

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKTak eta Konpetentzia Digitalak

**Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen
Irakaskuntzan**

Berezko Tituluko Proiektua

Parekoen behaketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: VEO sistema eta errubrika konparatuz

Egilea

Garazi Hormaetxe Ibarretxe

Zuzendaria(k)

Mikel Iruskieta

Montse Maritxalar



2019

Laburpena

Lan honen helburua ahozkoak ebaluatzeko VEO sistema eta paperezko errubrika konparatzea da. VEO ahozko jarduna edo klaseak iPad bidez grabatzeko sistema da, aurretik ezartzen diren etiketa batzuen bitartez erabiltzaileak funtsezko momentu eta elementuak markatzeko balio duena. Hori burutze aldera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle-talde batean eginiko praktika aurkezten da; hau da, ikasleek parekoen behaketa egingo dute VEO sistema eta errubrika erabiliz. Ondoren, bi tresnen erabileraren inguruko hausnarketa egin nahi da horretarako diseinatutako inkesta baten bidez. Bukatzeko, ikasleen esperientzia oinarritzat harturik, ikasleen parte-hartzea nolakoa den deskribatu nahi da eta komunikazioko arloari erreparatuz gero, arreta handiagoa non jarri duten aipatu, errubrika bidez egindako ebaluazioan ala bideoan oinarritutakoan. Emaitzen arabera DBHko ikasle-talde honek VEO sistema egokiagoa dela uste du.



Lan hau Aitortu - EzKomertziala - Berdin Partekatu (BY-NC-SA) lizentziapean dago. Honen arabera, lan originalaren eta izan daitezkeen lan eratorrien erabilpen komertzialik ez da baimentzen eta lanen banaketa lizentzia berberarekin egin beharko da, beti ere, egilea aipatuz.

Gaien aurkibideak

Laburpena	2
Gaien aurkibideak	3
Irudien aurkibidea	4
1. Sarrera	6
2. Proiektuaren helburuak	8
3. Proiektuaren garapena	10
3.1. Teknologia berriak Hezkuntzan	10
3.2. IKT-en papera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan	11
3.3. Parekoen behaketa ikasleen artean	12
3.4. Behaketarako tresna: VEO	13
4. Metodoa	16
4.1. Ikasleen antolaketa	16
4.2. Esku-hartzea	16
4.3. Tresnak eta etiketak	19
4.4. Ikasleei emandako jarraibideak ataza egin aurretik	20
4.5. Ikasleek egindako emaitzak analizatzeko modua	21
4.6. Inkesta ikasleen asebetetzea lortzeko	21
5. Emaitzak	23
6. Ondorioak	30

Irudien aurkibidea

- 1. irudia. VEOrekin grabaturiko saioa. 13
- 2. irudia. Jariotasunaren azpikontzeptuak. 14
- 3. irudia. Irakasleak ikasleei Moodle plataforman jarritako tutoriala. 16
- 4.irudia. Ikasleek egindako asebetetze inkesta. 22
- 5.irudia. Ikasleek egindako asebetetze inkesta. 23
- 6.irudia. Ikasleek egindako asebetetze inkesta. 24
- 7.irudia. Ikasleek egindako asebetete inkesta 25

1. Sarrera

Denborak aurrera egin duen heinean, teknologiak ere eraldatzen joan dira, gero eta tresna konplexuagoak sortuz. Digitalizaturik dagoen gizarte honek beste esparru askotan izan du eragina eta nola ez, hezkuntzan ere bere egina egiten hasia da.

Gaur egungo hezkuntza-sistemak, etorkizunean euren gizartera eta ingurura ahalik eta ondoen egokitzeko pertsonak sortu nahi ditu. Baita mundu profesionalean aurki ditzaketen egoera guztiei erosotasunez aurre egiteko gai diren pertsonak sortzea ere. Horregatik, gaur egungo hezkuntzan teknologia berriak, edo beste era batera esanda, ICTak txertatzeko aurrerapausoak ematen hasi dira, ikasleek euren ikaskuntza-prozesuetako lehen etapetatik ICT tresnak ezagutu eta erabiltzen ikas dezaten.

Ikasteko metodoen aldaketen eraginez, ICTak aldaketa-prozesu horietara egokitzeko beharra sortu da hezkuntza-arloan. Tresna ezberdinak ikasgeletan txertatzearekin, ikasleen gaitasunak lantzeko metodoak aldatu edo beharizan ezberdinetara moldatu behar izan dira. Ikastetxe askoren kasuan, ohiko testuliburuekin uztarturiko ICT jarduerak egiten dituzte, beste ikastetxe batzuetan, ordea, erabateko digitalizaziorako bidea eraikitzen ari dira jada. Hau da, testu-liburuen lekua txikituz doa eta gailu elektronikoen hartzen duten espazioa gero eta handiagoa da. Gailu elektronikoen bitartez, material didaktiko digitalak aurki daitezke eta gaur egun ikastetxeetan eskolak emateko jadanik prestaturik dagoen material andana eskuragarri aurki daiteke. Horretarako, ikasleek gailu elektronikoen baten beharra baino ez dute eta horien bitartez klaseko jarduerak egin ditzakete.

Merkatuan hezkuntzarako baliagarriak izan daitezkeen gailuen eskaintza zabala aurki daiteke, horren adibide dira Microsoft Surface, Samsung Galaxy Tab, Apple iPad edota Google Pixel. Hala ere, gailua aukeratzeko orduan hainbat ezaugarri kontuan hartzea ezinbestekoa da, hezkuntzaren arloan batez ere, epe luzera egiten diren inbertsioak izan daitezkeelako. Horregatik, gailuaren prezioa faktore garrantzitsuena

izan ohi bada ere, pantaila, konektibitatea, sistema operatiboa edota autonomia bezalako ezaugarriek ere berebiziko garrantzia dute.

Lan honetan ahozko jarduna ebaluatzeko VEO (*Video Enhancing Observation*) aplikazioa erabiliko da eta egun, Apple enpresak duen IOS sistema operatiboan soilik erabil daiteke. Ondorioz, Ipada izango da ikasleekin ataza burutzeko erabiliko den gailua.

Aurreko lerroetan aipatu bezala, ahozko ebaluazioan zentratuko da jarduna; izan ere, teknologiak aurrera egin ahala ebaluazioak egiteko sistemak ere aldatu egin dira. Orain arte, ikasgeletan ahozko adierazmenaren balorazioa egiteko errubrikak erabili izan ditut ikasleen lana behatzeko, eta hainbat saiakera egin ondoren ikasleek balorazioak jaso bai, baina egindako balorazioaren hausnarketa egiten ez zutela agerikoa zen. Akatsak ezagutzen zituzten, baina ondorengo praktikan errepikatu egiten ziren. Beraz, arrazoi hau izan da lan hau burutzeko motibazio edo abiapuntu nagusia: ikasleek euren gabeziak identifikatu eta komunikatzeko gaitasuna eta hizkuntzaren garapena hobetze aldera, hausnarketa hori sustatzeko baliabideak aztertzea, VEO zehazki.

Ikasgela barruan VEO bezalako tresna bat txertatzen den lehen aldia dela kontuan izanik, mota honetako baliabide bat erabiltzeko praktika-faltak agian lana mugatu du neurri batean. Ikasleentzat praktika eta aplikazio ezezagunak izatearen emaitzak ez dira espero zirenak, esan bezala ohitura-falta nabarmena delako. Horregatik, prospektiba eginez, emaitzak oparagoak izango lirarteke ikasturte osoan zehar ebaluatzeko sistema bera sarritan erabiliko balitz eta azken produktu bateko laginak jasoko balira.

2. Proiektuaren helburuak

Proiektu honen helburua da VEO sistema eta errubrikaren erabilera konparatzea. Horretarako, VEO (*Video Enhancing Observation*) aplikazioa eta idatzizko errubrikak erabili dira, ikasleek egingo dituzten eztabaida/elkarrizketak koebalutzeko eta koebaluzio horren emaitzak lortzeko, ikasleei inkesta bat egin zaie.

Kontuan izan behar da ahozkoak zuzentzeko metodo erabilienak errubrika bidezko ebaluazioak direla eta IPadean VEO aplikazioa erabiliz DBH2. mailako ikasleen artean elkarrizketa/eztabaidaren ahozkoak zuzentzeko beste modu bat aurkeztu nahi da; beraz, errubrikak eta VEOk eskaintzen dutena aurrez aurre jartzea da lan honen helburu nagusia. Horrez gain, bigarren mailako helburua da, tresnen erabilera aztertu ondoren, batak eta besteak dituzten ahulgune eta indarguneak ezagutzea.

Halaber, lan honen bitartez zenbait hipotesi egiaztatu nahi dira eta hipotesi horiek baloratzeko ikasleei VEO eta errubrikaren bidez ebaluazioak egitean, praktikaren inguruko inkesta egiteko eskatuko zaie. Horretarako, inkesta horretan indikadore ezberdinak erabiliko dira aipatuko ditugun hipotesiak egiaztatze aldera:

- H1. Ikasleen pareko behaketa IKTekin egitean, ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa handituko da. Hori baloratzeko inkestan feedback aberatsagoa zein tresnaren bitartez eman duten galdetu zaie. Horrez gain, VEOn erabilitako etiketak baliagarriak izan zaizkien ere galdetu zaie hipotesia egiaztatzeko xedez.
- H2. Ikasleek elkarri emango dioten feedbacka hobeto baloratuko dute bideoaren gainean ematen bada. Horretarako, zein tresnaren bidez ikasi duten gehiago galdetu zaie, hau da, VEOrekin edo errubrikarekin.

- H3. Ikasleek arreta handiagoa jarriko diote komunikazioko arloari feedbacka bideoan oinarrituta ebaluatu ondoren. Hau baloratzeko, zein etiketa erabili duten gehiago galdetu zaie.

Azkenik, VEO eta errubrikaren arteko konparazioa egiteko bi tresnen ahulguneak eta indarguneak zeintzuk diren identifikatzeko eskatuko zaie.

3. KAPITULUA

3. Marko teorikoa

3. 1- TEKNOLOGIA BERRIAK HEZKUNTZAN

Azken urteotan, Interneterako sarbidea izateak gizartearen eremu ezberdinetan izan du eragina eta horietariko bat eskola izan da. Lehen ez bezala, teknologia berriek iraganean izan ez duten lekua hartu dute. Azken bi urteetan maiz hitz egin izan da Web 2.0 delakoaz; izan ere, 2005. urtean Tim O'Reillyk terminoa sortu zuenetik, Interneten elkarrekintza eta elkartrukea ahalbidetzen duen sareko bertsio berriari erreferentzia egiteko erabili izan den terminoa da (Esnaola, 2006).

Esnaolak (2006) dioen lez, internetek bere sorreratik jasandako ondorioa da kontzeptu berria eta hasieran internet informazio-iturri hutsa bazen ere, jendartearen parte-hartzea eta elkarlana ahalbidetzen eta sustatzen duen tresna bilakatu da; erabiltzaileak sarearen eraikuntzan inplikatur. Horregatik, Web 2.0k dimentsio ezberdinetan eragiten du eta nola ez, hezkuntzan ere bai. Blogger, Wikipedia edo YouTube bezalakoak Web 2.0aren adibide batzuk dira eta aukera interesgarriak suerta daitezke eskola-jardueretarako.

Caldeirok (2009) aurkeztutako ikerketa baten arabera, ikaskuntza-prozesuan IKTek duten eragina neurtzea zaila da. Hala ere, ikerketari esker, IKTek ezagutzaren kudeaketan autonomia sustatzen duela erakutsi ahal izan da. Horrez gain, talde-lanaren bidez ezagutza eskuratzea errazten du eta ikaskuntza-prozesuen inguruan gogoeta egitera bultzatzen ditu ikasleak.

Pugak (2006) ere hezkuntzan ikertu ditu IKTak eta hainbat etapa edo hamarkada bizi izan dituela dio. Eremu horretan, hezkuntza-ikerketak zeresan handia izan du eta etorkizunean ere halaxe izaten jarraituko du, bertan interes ekonomiko, tekniko eta ideologikoen eragiten dutelako. Pugaren (2006) esanetan baliabideen inguruko lehen ikerketak —IKTen aurrekariez dihardugunean— 1918. urte ingurukoak

dira, baina Hezkuntza Teknologiaren eta ondorengo garapenaren giltzarria 50. hamarkada dela esan daiteke. Bestalde, 60. hamarkadan komunikabideek gizartean eragin handia izan zuten eta eragin horrek aldaketak ekarri zituen esparru guztietara, baita hezkuntzara ere. Esaterako, informatikaren garapenak ordenagailuak helburu didaktikoarekin erabiltzea ekarri zuen eta ordenagailu pertsonalek hainbat aukerari ateak zabaldu zizkieten hezkuntza indibidualari begira.

70. hamarkadan, ordea, informatikaren garapenak, besteak beste, ordenagailuak ekarri zituen eta horiekin batera ordenagailuen erabilera hezitzaileak. Ordenagailu pertsonalen etorrerarekin, hezkuntza digitalizatzeko aukerak biderkatu egin ziren eta irakaste-prozesuan erritmo ezberdinak eta norbanakoaren datu anitzetan zentratzea ahalbideratu zuen.

80. hamarkadaren hasieran eta erdigunean, teknologia horiek eskolan integratzeak datuetan oinarrituriko ikerketa asko bideratu zituen, baita hezkuntzarako zuen baliagarritasunaren aurkako zenbait kritika ere. Pugak (2006) dioenez hainbat ikertzailek (Chadwick,1979, Kempt,1987, Megarry, 1983, Spitzer, 1987) kritika hauen arrazoiak planteatzen zituzten: praktikak enpirikoegiak zirela edota ikerketak ikus-entzunezko materialetan soilik zentratuak zeudela, besteak beste. 90. hamarkadatik, ordea, Hezkuntza Teknologia garrantzia galduz joan dira eta IKTak arretagune nagusi bihurtu dira hezkuntza arloan.

Azkenik, Pugak (2006) dio prozesu konplexua dela IKTak eskoletan txertatzea. Bere esanetan, gaur egun arte, administrazioaren lehentasuna azpiegiturak hornitzea izan da eta IKTen erabilera ebaluatzeko hutsuneak ageri izan dira egungo hezkuntza-sisteman. Integratzaileak diren proposamenez gain, IKTak hezkuntzan txertatzea kasu, beharrezkoa omen da helburu batzuk ezartzea eta hori lortzeko oraindik, eremu horretan, egiteko handia dagoela aipatzen du. Orobat, gure hezkuntza sisteman IKTek duten eragina ebaluatzea etorkizunean joratu beharreko gaia dela dio, batez ere, gure eskoletan duen eragina zehaztu ahal izateko, antolakuntza, garapen profesional zein ikas-irakaste prozesu mailan.

3. 2- IKT-EN PAPER A DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN

IKTak Bigarren Hezkuntzan ere lanabes baliagarriak izan daitezke ikas-irakaste prozesuetarako. Izan ere, IKTek sareko bilatzaileen bidez, ikasleek nahi

duten informazioa bilatu dezakete eta komunikazio-ingurune aberatsa eskain dezakete. Horrez gain, sarean eztabaidak antolatzeko aukera ahalbideratzen dute eta ikasleek euren iritziak eta pentsamenduak libreki azaleratzeko euskarri elektronikoak erabiltzeko aukera ere eskaintzen dituzte (Ríos eta Figueroa, 2013).

IKTek diziplina ezberdinetako jarduerak egiteko aukerak ematen badituzte ere, konplexuena, IKT horien erabilera egokia egitea da. Alde batetik, irakasleak gaitasun ugari eskuratu behar dituelako IKTen erabilerarako eta, bestetik, beharrezkoa den formakuntza eskuratu behar dutelako bere ikasleekin erabiltzeko. Zentenoren eta Jorgeren (2011) ustez, arazoa ez da ikastetxeetako berrikuntza-falta, baizik eta askotan elkarrekin loturarik ez duten proiektu gehiegi aurkezten direla eta, ondorioz, arazoa beste bat dela diote: berrikuntzen jarraipena eta transferentzia, alegia.

Horrez gain, profesionalizazioa eta intentsifikazioa hezkuntza konplexuago bihurtzearen azalpen bat izan daiteke, intentsifikazioak lanaren gainkarga kroniko bat dakarrelako. Horrek irakasleen lanean negatiboki eragin dezake eta, ondorioz, ikasgela barruan berrikuntza ekartzea galarazi dezake. Hala ere, orokorrean, ikerketa anitzen arabera (Zenteno eta Jorge, 2011) zuzeneko eta zeharkako hobekuntzak nabaritu daitezke edozein mailako ikasleen emaitzetan. Arestian aipatu bezala, garrantzitsuena irakasleen lana eta prestakuntza da, Zentenoren eta Jorgeren (2011) hitzetan funtsezko elementuak baitira IKTak modurik egokienean txertatuak izateko. Egia omen da, ordea, erdi-mailako eta goi-mailako hezkuntza-sistemetan ez direla teknologia hauek gehiegi zabaldu eta arrazoi horregatik, ikerketa gehiagoren beharra dago teknologia berritzaileen eta hezkuntza-prozesuen inguruan.

3. 3- PAREKOEN BEHAKETA IKASLEEN ARTEAN

Arestian aipatu bezala, VEO tresna erabiliko dugu ikasleek euren arteko ebaluazioa egiteko ahozko eztabaida edo elkarrizketa baten gainean; hau da, parekoen behaketa egingo da.

Parekoen behaketa edo koebaluazioa prozesu bat da, non ikasle zein irakasleek ikasleen lanaren ebaluazioan parte hartzen duten. Ikertzaileen arabera mota honetako ebaluazioaren bidez ikasleek euren ikaste-prozesuan barneratutakoa sakondu dezakete; horrez gain, modu aktiboago eta zuzenago batean parte hartzera bultzatzen ditu euren ikaskuntzan (Falchikov, 2005; Sivan, 2000). Hori gutxi balitz, koebaluazioa baliagarria izan daiteke euren ikasketa antolatzeko, indarguneak eta


ahulguneak identifikatzeko edota beste arlo batzuetara transferitu ditzaketen trebetasunak garatzeko (Topping, 2003).

Lan honetan proposaturiko ariketek landutako kompetentzien gaineko hobekuntzak ebaluatzeko aukera eskaintzen digute, baina emaitza hobekiak lor daitezke ebaluazio-prozesu horretan ikasleak tartean sartuz gero eta parte-hartzaile eginez. Horrela, ebaluatzeko kontuan hartuko diren irizpideak zeintzuk diren eta ariketak burutzearekin zer espero den uler dezakete. Ikasleek ebaluatuko ditugun kompetentzien ezaugarriak zehatz-mehatz ezagutzen badituzte ere eta kompetentzia baten ondorio zuzena justifikatzeko zein indizio behatu behar dituzten jakin arren, uste dugu sistema honekin euren ikaskuntza eskuratu beharreko helburuan jarriko dutela arreta. Eredu hau ikaskuntza estrategikoari begira dagoen ebaluazioaren eskutik dator eta honen bidez, inguru profesionaletan pairatzen diren aldaketei eraginkortasunez eta modu azkarrean egokitzeko behar dituzten kompetentziak bultzatuko dituzte (Navarro eta González, 2010).

Autoebaluazioak zein parekoen ebaluazioak taldeka egin daitezke ebidentziak eta eztabaidak kontuan hartuz. Edozein kasutan irakasleak behatutako errealitatea eta ebaluazioa bat ez badatoz, irakaslearen eta parte hartu duten ikasleen arteko elkarrizketak lagun dezake. Horrez gain, lagun dezake, aurkeztutako estrategia honetan, aurretik eduki teoriko batzuk eta kompetentzia batzuk barneratzea; izan ere, eduki teorikoak ikasgaietan zehar modu objektibo batean egindako proben bidez ebaluatuko dira eta kompetentziak, aldiz, modalitate ezberdinetan egingo dira (Navarro eta González, 2010).

3. 4- BEHAKETARAKO TRESNA: VEO


Aurreko lerroetan aipatu dugun lez, VEO¹ (*Video Enhanced Observation*) klaseak iPad bidez grabatzeko sistema bat da, irakasle-lana bera abiapuntu hartuta hobeto irakasten ikasteko (ikus 1. irudia). Irudian ebaluazioa egingo duen pertsonak iPadaren pantailan ikusten duena ageri da. Etiketak pantailaren alde banatan daude (erabiltzaileak nahi dituen tokian jar ditzake) eta zuzenean atzamarrak ukitzen dira.



1. irudia: VEOrekin grabaturiko saioa.

Behatutako klaseko funtsezko momentu eta elementuak markatzeko etiketa-sistema bat erabiltzea da tresnaren oinarria. Ezaugarriak bideoan markatuta geratzen dira, erabiltzaileak gero zuzenean joan ahal izan daitezten klaseko funtsezko momentuetara, grabatu ondoren bideoa ikusten dutenean. Aukeratutako momentura zuzenean joan ahal izateko moduan ezartzen dira etiketak. Era berean, erregistratutako jarduerari buruzko estatistika gordinak ere ematen ditu programak, eta behatzaileak bideoan gehitzen duen etiketa bakoitzari lotutako oharrak eta iruzkinak gehitzeko aukera ere ematen du (Batle, 2017).

VEOren gako-elementua eskaintzen duen etiketa-sistema da: ebaluatu edo behatu nahi diren elementuen arabera erabiltzaileak etiketak sortuko ditu, zortzi gehienez, eta etiketa bakoitzaren barruan nahi beste azpietiketa, mugarik gabe (ikus 2. irudia). Azpietiketak sortzean bakoitza positibo edo negatibo moduan markatu daiteke edo galdera-markaz adierazi momentu horretan balorazioa jarri nahi ez badu. Irudian etiketa bakoitzaren barruan aurki daitezkeen azpietiketak ageri dira. "+" eta "-" ikurren bidez, modu positiboan edo negatiboan baloratu daitezkeenak.



2. irudia. Jariotasunaren azpikontzeptuak.

Etiketak grabaketak burutzen diren bitartean erabili daitezke, iPadean agertzen dira aurretik ezarritako guztiak eta ahozko jarduna aurrera joan ahala ebaluatzaileak momentuan ikusten dituen gertaerak seinala ditzake, gertaera bakoitzerako etiketa egokia aukeratuz. Grabazioa bukatzean, informazioa hodeira edo lainora doa eta behaketan parte hartzen duen orok ikus dezake, bai grabaketaren ebaluazio kuantitatiboa (grafiko bidezkoa) edo behatzaileak berak grabaketa egin ostean hartutako oharrak.

Horrez gain, VEOk grabaketak partekatzeko aukera eskaintzen du parte-hartzaileek bideoak ikusi eta iruzkinak egin ditzaten; modu horretan, komunitate antzeko bat sor daiteke elkarlanean praktika erreflexiboa egiteko (Batle, 2017).

4. KAPITULUA

4. Metodoa

Atal honetan lan hau egiteko metodoa azalduko dugu. Lehendabizi, ikasleen antolaketa azalduko dugu, 4.1. azpiatalean hartutako ikasleen ezaugarriak zeintzuk diren eta ikasgela nola antolatu den azaltzeko asmoz. 4.2 azpiatalean, ikasleekin egindako esku-hartzea zertan datzan azalduko da, eta 4.3 azpiatalean, berriz, VEO tresnaren eta beronen etiketen inguruko informazioa emango da. Ondoren, 4.4 atalean, ataza egin aurretik ikasleei emandako jarraibideak zeintzuk diren azalduko dira eta jarraian, 4.5 atalean, ikasleek egindako emaitzak nola analizatu diren. Azkenik, 4.6 atalean, ikasleen asebetetzea lortzeko egindako inkestaren nondik norakoak azalduko dira egindako esku-hartzearen emaitzak ezagutzeko asmoz.

4. 1- IKASLEEN ANTOLAKETA

Ikasleekin egingo dugun jarduerak *Eztabaidatu eta behatu dezagun* du izena eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleekin egiteko diseinatu da. Gela 29 ikaslez osatutako taldea izanik, 4 partaideko taldeetan banatuko ditugu ikasleak (talde batean 5 kide izan beharko dira). Elkarrizketak binaka egin eta grabatuko dituzten arren, lau taldeak diseinatu ditugu ebaluazioari begira; hau da, ebaluazioari begira bikote batek bestea baloratuko du. Helburu nagusia ikasle denek ahozko elkarrizketa burutzeaz gain, VEO tresna eta errubrika erabiltzea izango da; horregatik, ikasle batek bi balorazio ezberdin egingo dizkie beste bi ikaskide ezberdinei. Horretarako, laukoteen barruan errotazioak egingo dira, bikote bat beste batengatik trukaturik eta laukote "berria" sortuz.

Ondoren, klasean egingo dugun esku-hartzea azalduko dugu eta honako atal nagusiak izango ditu: 1) Beroketa ariketak, 2) Lanketa eta 3) Ebaluazioa.

4. 2- ESKU-HARTZEA

Eztabaidatu eta behatu dezagun

-Zer egingo dugu?

DBH 2. mailako ikasleek ahozko adierazmena lantzeko jarduera batzuk egingo dituzte. Honako lanketa honek 2/3 astetako iraupena izango du, saio kopuruak kontuan hartuz 5-6 saio beharko ditugu atazak burutu ahal izateko.

1) Beroketa-ariketak

Lehenik eta behin ikasleak egin beharrekora gerturatu behar ditugu eta aurretik idatzizko lana egin dutenez, testu hori sortzeko erabili diren gaiak erabiliko dira eztabaidak edo elkarrizketak prestatzeko. Horrela, gaiak ezagunak izango dira eta argudioak ematea errazagoa izango da haientzat.

Gaiak ikasleei emateaz gain, VEO tresna ere aurkeztuko zaie, izan ere, errubrika ikasleentzat ezaguna den arren, parekoen behaketa egiteko VEO bezalako tresna bat erabiliko dute lehenengoz eta tresnaren erabileraren inguruko argibideak ematea funtsezkoa da erabilera hori zuzena izan dadin. Aurreko lerroetan aipatu bezala, irakasleak ikasgelan emandako azalpenaren osagarri bezala, Moodlen bideo bat jarriko die eskura, ikasle bakoitzak nahi bestetan ikus dezan (ikus 3. irudia).

The screenshot shows a Moodle course page for 'VEO nola erabili (tutoriala)'. The breadcrumb trail is: Aginte-panela > Nire ikastaroak > Euskera 2.DBH > 6.Gaia: Ikusi eta gero, denak jakintsu > VEO nola erabili (tutoriala). The main content area features a video player with a 'RECORD' dialog box overlaid, containing a dropdown menu for 'Ezkerretara' and a 'CONTINUE' button. Below the video player, there is a navigation menu on the right titled 'Nabigazioa' with a search icon. The menu includes 'Aginte-panela', 'Gunearen hasiera', 'Guneko orriak', 'Nire ikastaroak' (with sub-items: Gizarte 1.DBH, Euskera 1.DBH, Euskera Tailerra 1.DBH, Euskera 2.DBH), 'Partaideak', 'Dominak', 'Konpetentziak', 'Kalifikazioak', 'Orokorra', '1.Gaia: Bide onena da laburrena', '2.Gaia: Arantza gabeko bizitzarik ez', and '3.Gaia: Gazteak onena zera'. Below the video player, there is a 'Joan hona...' dropdown menu and two navigation arrows: '◀ 6.entzungaia (ezkutuan)' and 'Deklinabide atzikiak badakizuz? NOR eta NOR (ezkutuan) ▶'. The page header shows the Moodle logo and navigation tabs: 'Hasiera', 'Edukiak', and 'Nire ikastaroak'. The browser status bar at the top indicates the time is 21:40 on June 13, the URL is moodle.begonazpi.org, and the battery level is 68%.

3. irudia. Irakasleak ikasleei Moodle plataforman jarritako tutoriala.

2) Lanketa

- 1. saioa:

Ataza 4 partaideko taldeak eginez osatuko da; talde bakoitzean gai bakarra aukeratuko dute euren eztabaidan erabiliko dutena; gaiak irakasleak proposatuko ditu eta talde bakoitzak berea aukeratuko du. Ondoren, talde bakoitzean 2 rol ezberdin emango zaizkie: bi gaiaren alde agertu beharko dira eta beste bi kontra egongo dira. Binaka jarrita emandako gaiaren aldeko/kontrako argudioak prestatu beharko dituzte IPadetan oharrak hartuz eta interneten ere argudio horiek garatzeko beharrezkoa duten informazioa kontsulta dezakete.

- 2. eta 3. saioak:

Bigarren saio honetan grabaketari ekingo diote. Ezinbestekoa da ikasleek VEO IPadetan instalaturik izatea (gutxienez bikote bakoitzetik batek) eta gutxienerako erabilera arau batzuk ezagutzea. Horretarako, aurreko lerroetan aipatu bezala, irakasleak Moodlen bideo-tutorial txiki bat prestatuko die oinarrizko erabilera egiteko jarraibide batzuk emanaz.

3) Ebaluazioa

- 4. saioa:

Aurreko saioetako lana ebaluatu eta baloratuko dute. Horretarako, bikote batek beste bikotearen elkarrizketaren gaineko iruzkinak egingo ditu eta VEOrekin egindako etiketak kontuan hartuz ahozkoaren balorazio orokor bat egingo dute. Zazpi etiketa erabiliko dira orotara: egokitasuna, koherentzia eta kohesioa, zuzentasuna, aberastasuna, jarriotasuna, intonazioa eta bolumena.

Hauek kontuan izanda, lehendabizi balorazioa VEOrekin egingo dute eta, ondoren, gauza bera egingo dute VEO erabili gabe eta beste pertsona batekin; hau da, ikasle batek bi pertsona ezberdinengandik feedbacka jasoko du (bata VEOrekin egindakoa eta bestea VEO gabe).

Gomendagarria da azalpenak ematen diren heinean VEOko grabaketak ikustea eta ikasle bakoitzak eginiko etiketak hizlariekin batera ikustea modu honetan ikasleen euren akatsak errazago identifikatuko dituzte eta hurrengo saiakeretan non hobetu jakingo dute.

- 5.saioa:

Ikasleek grabaketak egin eta ikaskideak baloratu ostean irakasleak eginiko inkesta bat beteko dute: [Nola ikasi dut gehiago?](#) izenpean joango dena.¹ Egindako jarduera baloratzeko eta jardueraren inguruan ekarpenak egiteko baliagarria izango da.

4. 3- TRESNAK ETA ETIKETAK

Arestian aipatu bezala, ikasle guztiek bi tresna erabiliko dituzte parekoen arteko behaketa egiteko. Alde batetik, VEO aplikazioa erabiliko dute eta, beste alde batetik, errubrika.

Aurreko lerroetan azaldu den moduan, VEO aplikazioa erabiltzeko iPad gailua erabiliko dugu, oraingoz aplikazio hau erabili ahal izateko, tresna honek soilik eskaintzen duelako aukera.

Errubrikari dagokionez, ikasle bakoitzak berea izango du eta kide batek bere balorazioa egin behar duen unean errubrika emango dio honek bete dezan. VEO n zein errubrikan zazpi adierazleaz osatutako ebaluazioa egingo dute: egokitasuna, koherentzia eta kohesioa, jarioasuna, zuzentasuna, aberastasuna, intonazioa eta bolumena.

Egokitasunaren barruan hizlariak testuingurura egokitzeko duen gaitasuna baloratuko da: gaiaren nolakoa kontuan hartzeko gai izan behar du eta emandako informazioa ekintza komunikatiboak eskatzen duenera egokitzen jakin beharko du. Horrez gain, lexikoak egokia izan behar du eta errepikapenak saihestu beharko ditu.

Koherentzia eta kohesioari dagokionez, elkarrizketa arruntak burutzeko gai diren baloratuko da. Hainbat esapidez baliatzeko eta oinarriko kohesio-formak erabiltzeko gai izan behar du, baita esaldien arteko kateamendu logikoa egiteko gai ere. Diskurtsoa hari nagusi baten inguruan egin eta josten duen baloratuko da eta jarduna koherentea izan behar da, kontraesanak eta ideien errepikapena saihestuz.

Jarioasunean, ordea, jarduna jarraitua eta soltea den behatuko du ebaluatzaileak. Hizlaria erritmo naturalean aritzeko gai den eta arrazoi ezberdinengatik bere diskurtsoa moteldu egiten den ala ez identifikatu beharko du.

Aberastasuna behatzeko orduan, ebaluatzaileak hizlariak dituen hizkuntza-baliabideetan jarri beharko du arreta; hots, elkarrizketan erantzun laburretara soilik mugatzen ez dela eta lexiko aberatsa duela.

¹ <https://labur.eus/vMNPV>.

Zuzentasunaren atalean, aditz-sistemak, deklinabidea edota sintaxian egiten dituen akatsak identifikatu beharko ditu eta batez ere beste hizkuntza baten eragina nabaria den ala ez baloratu beharko du, erderakadak kasu.

Azkenik, bolumena eta intonazioa bi etiketa edota atal ezberdinetan jarri badira ere, gauzatzen ari diren jarduera egiteko hizlariak doinu eta tonu egokia erabiltzen duten hartu beharko dute kontuan.

Orotara, VEOn zein errubrikan zazpi etiketa izango dituzte; baina aipatu beharra dago horrez gain, VEOk azpietiketak jartzeko aukera duenez, etiketa bakoitzaren barruan adierazle zehatzagoak jarriko zaizkiela eskura, akatsak modu errazago batean identifikatzeko asmoz. Etiketa guztiek ez dituzte azpietiketak izango; lehen esan bezala oharrak idazteko aukera ere badutelako. Baina aberastasunean esaterako, “erderakadak” eta “hitz desegokiak” bezalako azpietiketak jarri zaizkie, akatsa zein motatakoa den errazago markatzeko. Koherentzia eta kohesioan, ideiak errepikatzen diren, hizlaria kontraesanean dabilen ala bai/ez motako erantzunetara soilik mugatzen den aukeratu dezakete. Aurreko etiketekin gertatu bezala, akats horiez gain ñabarduraren bat egin nahi baldin badute, ohar bidez egin dezakete. Azkenik jarioasunean ere, etenak, errepikapenak, jario motela, parte-hartze txikia eta ikaskidearen jarduna zapaltzen duen adierazi dezakete.

Horrela, azaldutako adierazleetan hainbat ezaugarri kontuan hartu behar badituzte ere, azpietiketen bidez ezaugarri edo akats horiek identifikatzeko sarbide zuzena izango dute atal bakoitzaren barruan.

4. 4- IKASLEEI EMANDAKO JARRAIBIDEAK ATAZA EGIN AURRETIK

Garrantzitsua da jarduera egin aurretik ikasleekin ebaluatzeko tresnen inguruko lanketa bat egitea. Alde batetik, ikasleei VEO aplikazioaren erabilera zertan datzan azaldu behar zaie; bideoa grabatzen hasteko pausuak zeintzuk diren eta etiketak non aurkituko dituzten adieraziz. Beste aldetik, azpietiketa bakoitza non dagoen ere jakin behar dute, ebaluazioa zuzen egiteko funtsezkoa baita etiketak gertaerak jazo ahala ahalik eta arinen jartzea.

Errubrika, irakaslearen eta ikasleen artean osatzea proposatzen da, horrela ikasleek adierazle bakoitzean kontuan hartu behar diren elementuak zeintzuk diren jakingo dute eta elkarriketa ebaluatzerako orduan zehazki zer behatu beharko duten jakingo dute.

4. 5- IKASLEEK EGINDAKO EMAITZAK ANALIZATZEKO

MODUA.

Ikasleek egingo duten lana baloratze aldera irakasleak bi arlo nagusi hartuko ditu kontuan; alde batetik irakasgaiaren barruan ebaluazioa egiteko baliagarri izango zaion laginak hartu ditzake (bideoak) eta bestetik VEO tresnarekin egin duten erabilera ere ikasleen kompetentziak baloratzeko erabili dezake.

Bideoak baliagarri izan daitezke Euskara eta Literatura ikasgaien ahozko mintzamina ebaluatzeko; izan ere, bideoak lainoan gordeta geratzen direnez, irakasleak ere nahi beste aldiz ikus ditzake. Horrez gain, ikasleek egindako etiketak eta oharrak kontuan hartuz, irakasleak berak ere ohar gehiago gehitu ditzake bideoan. Modu horretan irakasleak hizkuntzaren garapenari erreparatu diezaioke eta bideoetan gehien erabili diren etiketak edo egin diren akatsak zeintzuk izan diren aztertu dezake. Etorkizuneko praktikei begira, bere ikasleek ahozko jardunean egiten dituzten akats ohikoak zeintzuk diren identifikatu dezake eta errazago jar dezake arreta zuzendu beharreko akats horietan.

VEOren eta iPadaren erabilera ere irakasleak kompetentzia bezala ebaluatu ditzake; irakasleak ikasleek teknologiaren erabileraren kompetentzia ebaluatu behar duenez, bai erabilitako aplikazioaren eta gailuaren erabileraren inguruko balorazio orokor bat ere egin dezake. Gainera, irakasleak etorkizunean tresnak erabiltzeko asmoa badu, horiek erabili aurretik ikasleei egin beharreko hurbilpena hobetu dezake. Hau da, VEO bezalako tresna bat ikasleek aurretik erabili ez dutela kontuan hartuta, beharrezkoak diren azalpenak eta informazioa gehiago zehaztu daitezke, etorkizunari begira emaitzak hobetze aldera.

4. 6- INKESTA IKASLEEN ASEBETETZEA LORTZEKO.

Ikasleen asebetetzea lortze aldera, inkesta bat bete beharko dute eta horretarako sei galderaz osaturiko galdetegia prestatu zaie parte hartzaileei.

Hasteko, feedbackari buruz egingo zaie galdera, hau da, euren ustetan zein tresnaren bidez eman edo jaso duten feedback aberatsagoa. Horren bidez, irakasleak ikasleei ebaluazioa egiterako orduan, akatsak identifikatzeko eta akats horiek zuzentzeko eta hobetzeko tresna egokiagoa zein izan daitekeen jakin dezake. Ikasleen jarduna eta komunikazio-gaitasuna hobetze aldera, hobetu beharrekoak

errazago barneratzeko etorkizuneko praktikei begira tresnaren aukeraketa zuzena egin dezake.

Etiketen erabileraren inguruan ere irakasleak informazioa jasotzea interesgarria izan daiteke eta, horretarako, etiketa-sistema erabilgarria iruditu zaien galdetuko zaie. Horri loturik, etiketa erabilienak zeintzuk diren jakiteko ere aukera anitzeko galdera egingo zaie, etiketa guztien izenak jarriz eta bat baino gehiago markatzeko aukera eskainiz. Irakaslearentzat oso baliagarria izan daiteke ikasleen artean ohikoenak diren akatsak identifikatzeko eta hori abiapuntu izanik ikasgelan sakonago landu beharreko ahulgune nagusiak zeintzuk diren jakiteko.

Irakaslearentzat oso baliagarria izan daiteke ikasleek zein tresnaren bidez ikasten duten gehiago jakitea, hau da, akatsak identifikatzeko eta hobetu beharrekoak erreparatzeko zein tresna iruditu zaien eraginkorrena.

Bukatzeko VEO zein errubrikaren indarguneak eta ahulguneak zeintzuk diren idazteko aukera emango zaie ikasleei, horrela VEO naiz errubrikaren prospektiba egin dezake irakasleak tresna bakoitzari egin dakizkiokeen hobekuntzak kontuan hartzeko asmoz.

5. KAPITULUA


5. Emaitzak

Arestian formulatu ditugun hipotesiei erantzuteko eta laneko helburuak erdiesteko, ikasleek egindako asebetetze-inkestaren bidez hainbat indikadore hartu nahi izan dira kontuan emaitzak ateratzeko. Inkestaren barruan, galdera batzuk bai/ez erakoak izan dira, edota aukera bakarrekoak; emaitza zehatz bat ateratzeko asmoz. Beste batzuk ordea, aukera anitzekoak izan dira eta azkenik beste galdera batzuk ikasleek euren erantzunak garatu ahal izateko espazioak izan dira.

H1 hipotesiari erantzuteko hainbat galdera egin ditugu. Lehen galderan ikasleei feedback aberatsagoa nola eman duten galdetu zaie eta irudian ikusi daitekeen bezala, % 86,2k VEO aukeratu du, bitartean % 13,8k errubrika nahiago duela adierazi du.

Nola eman dozu feedback aberatsagoa?

29 erantzun




4.irudia: Ikasleek egindako asebetetze inkesta: feedback aberatsagoa nola eman duten galdetzen zaie.

Galdera horrek, esan bezala, ikasleen zergatiak idazteko espazioa zuen euren arrazoiak ezagutzeko eta iritzia garatzeko. Ikasleek adierazitakoaren arabera, VEO bidez zuzenketak egitea askoz errazagoa da errubrikarekin baino; izan ere, VEOk eskaintzen dituen etiketen bidez errazagoa egiten zaie akatsak identifikatzea eta akats horiek zehaztasun batekin erregistratzea. Unean uneko errakuntzak markatu ahal izatea eta azpietiketen bidez aukera anitz izatea VEOren abantailarik nagusienetarikoa dela azaltzen dute; eta jakina, bideoen grabazioak gordeta gelditzen direnez, grabaketetan akatsak banaka aztertzeke eta horien gainean oharrak egiteko ematen duen erraztasuna oso aberasgarria dela azpimarratzen dute. Izan ere, errubrikarekin balorazio oso orokor bat ematen dela uste dute, ezin direlako akats zehatzak jarri eta ahozko jarduna bukatu arte kalifikazioak jartzea ezinezkoa dela diote.

Horrez gain, VEO erabiltzean eta ikaskideei balorazioa egiterako orduan etiketak baliagarriak izan zaizkien galdetu zaie eta % 96,6k baiezkoa erantzun du. Hala ere, % 3,4k ez du uste etiketak baliagarriak direnik.

Baliagarriak egin jatzuz etiketak?

29 erantzun



5.irudia: Ikasleek egindako asebetetze inkesta: etiketak baliagarriak iruditu zaizkien galdetzen zaie.

Ikasleen gehiengoari oso baliagarriak iruditzen zaizkio etiketak; batez ere akatsak zehaztasunez jarri daitezkeelako eta kideari ebaluazioa egiterako orduan askoz errazago erakusten zaiolako noiz eta zertan egin duen kale. Horrez gain, atzamarren erabilerarekin egin beharra dagoenez, sistema azkarra dela diote eta horri


esker ez dutela akatsa memorizatu behar beranduago ikaskideari akats horren zergatiak justifikatzeko. Hala ere, badago etiketei alde negatiboa bilatu dionik, % 3,4k uste du, VEO erabiltzen duen lehen aldia izanik galduta egon dela etiketak erabiltzerako orduan eta sarritan ez duela jakin akatsa zein etiketaren barruan kokatu behar zituen.

Horiek horrela, esan dezakegu H1 hipotesia “Ikasleen pareko behaketa IKTekin egitean, ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa handituko da” bete egin dela.

H2 hipotesiari dagokionez, ikasleei euren esperientziaren arabera zein tresnarekin ikasi duten gehiago galdetu zaie, eta emaitzetan adostasun osoa dagoela nabarmendu daiteke; ikasleen % 100k uste du VEOrekin errubrikarekin baino gehiago ikasten dela.

Nola uste dozu ikasi dozula gehiago, zein sistemarekin?

29 erantzun



6.irudia: Ikasleek egindako asebetetze inkesta: zein sistemarekin ikasi duten gehiago galdetzen zaie.


Idatzizko erantzunetan ere, adostasuna erakusten dute emandako arrazoi bitartez. Aurreko lerroetan aipatu izan den bezala, grabaketek lana asko errazten dutela diote, hau da, akatsak kuantitatiboki baloratu daitezkeela eta elkarrizketaren edozein momentutan. Gainera, grabaketa bukatzean egindako akatsak zerrenda batean erregistratzen dira eta horiek banaka entzuten eta ikaskidearekin horien gaineko oharrak edo zuzenketak egin daitezke, gerora akats horiek ez errepikatzeko asmoz.

Hori horrela H2 hipotesia “ikasleek elkarri emango dioten feedbacka hobeto baloratuko dute bideoaren gainean ematen bada” ere bete dela esan dezakegu.

H3 hipotesia bete den aztertuko dugu ondoren. Horretarako, aukera anitzeko erantzunen bitartez, etiketen erabilera ere neurtu nahi izan da, eta horretarako etiketak zerrendatu dira ikasle bakoitzak gehien erabili dituen etiketak zeintzuk diren jakiteko asmoz.

Zein etiketa erabili dozu gehiago?

29 erantzun



7.irudia: Ikaslek egindako asebetete inkesta: zein etiketa erabili duten gehiago galdetu zaie.

Grafikoan (ikus 7. irudia) adierazten den moduan, hauexek dira ikasleek erabili dituzten etiketak: 19 ikaslek (% 65,5k, 29tik 19k) zuzentasunari loturik dagoen etiketa erabili duela esan du. Zuzentasunaren ondoren, 13 ikaslek (% 44,8k, 29tik 13k) koherentziari eta kohesioari loturiko etiketa erabili dute. Honen arabera, ikasleek ideien errepikapenean, kontraesanean kale egin dutela edo euren jarduna erantzun laburretara mugatzen dutela adierazten du. % 41,4k egokitasunari dagokion etiketa erabili du, beraz, ehuneko horrek hizlariak testuingurura egokitzerako orduan zailtasunak izan dituela edo emandako informazioa ekintza komunikatibora egokitzen ez dela adierazten du.

Grafikoak adierazten duenaren arabera jariotasunean (%37,9), aberastasunean (%20,7), intonazioan (%10,3) eta bolumenean (%17,2) egin dituzte akats gutxien ikasleek.

Azkenik, ikasleei errubrikaren eta VEOren indarguneak eta ahulguneak aipatzeko eskatu zitzaie. VEO erabilera errazeko tresna dela uste dute, eta etiketen

laguntzari esker balorazioak oso zehatzak direla diote. Akatsak momentu zehatz batean identifikatu ahal izatea eta akats horiek momentuan edo gerora justifikatu ahal izatea ikasteko oso erabilgarria dela uste dute; etiketekin lortzen dena ezin daitekeelako errubrikan modu berean adierazi. Baina VEO erabiltzerako orduan, pertsonak praktika behar duela azpimarratzen dute, hots, etiketak momentu egokian jarri ahal izateko azpietiketa bakoitza non dagoen ondo jakin beharra dago, bestela akatsa markatzen den momentuan hizlariak aurrera egin du eta ebaluatzaileak adierazitakoaren eta akatsaren artean segundo batzuen arteko aldea egon daiteke. Beraz, ebaluazio onak egin ahal izateko, askotan erabili beharreko sistema dela diote.

Hori horrela, H3 hipotesia "Ikasleek arreta handiagoa jarriko diote komunikazioko arloari feedbacka bideoan oinarrituta ebaluatu ondoren" neurri batean bete dela esan daiteke. Etiketak edo akatsak markatzeko modua zehatza denez, errakuntza horietan arreta gehiago jartzen dutelako eta ikaskideari gaizki egindako eta hobetu beharreko helarazten diotelako. Baina kontuan hartu behar dugu ikasleek VEO erabiltzen zuten lehen aldia dela eta askorentzat tresna arrotza izan dela saiakera hau egin aurretik; beraz, erabilera faltagatik etiketak gaizki jarrita egon daitezke hipotesia kolokan jarritz.

Errubrikaren alde positiboen eta negatiboen inguruan ere iruzkinak egiteko eskatu zitzaaien eta Interneta edo sarea behar ez izatea abantaila dela uste dute. Gailuek bateria eta interneterako sarbidea behar dute VEO erabiltzeko eta errubrikak behar hori ez duela azpimarratzen dute. Horrez gain, errubrika azkarrago osatzen dela diote, VEOk aldiz inplikazio eta arreta gehiago eskatzen duelako. Baina ikasleen iritziz, errubrikak balorazio orokor bat emateko balio du soilik, errubrika aldeztu aurretik ondo irakurri eta ulertu beharra dagoela diote eta ez duela balio akats zehatzak markatu eta justifikatzeko eta baituelako horretarako sistemarik eskaintzen. Beraz, errubrika erabiliz ebaluazio edo zuzenketa on bat egitea zailagoa delakoan daude.

Halaber, VEO n ikasleek erabili dituzten etiketak bildu eta horren emaitzak aipatzen ditugu 1. taulan.

	Inton		Zuzen		Jariot		Abers		Koher		Bol		
	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	+	-	
B1	1		6			5		1		1			14
B2			5			5							10
B3			4		1	1					2		8
B4			3		2				2		1		8
B5			2						2		1		5
B6	2		1										3
B7			1										1
B8	1				5		2				2		10
B9							2				1		3
B10					8				1		2		11
B11			6										6
B12			1										1
B13					7								7
	4	0	29	0	23	11	4	1	5	1	9	0	87

1.taula: VEO sistemarekin ikasleek erabili dituzten etiketa-kopurua. B1 = 1. bikotea; Inton = intonazioa; Zuzen = zuzentasuna; Jariot = jariotasuna; Abers= aberastasuna; Kehr = koherentzia; Bol = bolumena; + = etiketa positiboa edo ondo egina; - = etiketa negatiboa edo zuzendu beharrekoa.

Orobat, VEO n ikasleek modu ezberdinean jokatu dute etiketak jartzeari dagokionez: a) badaude bikoteak etiketa bakarra eta behin jarri dituztenak (B7 eta B12). Horren arrazoa tresna erabiltzeko ohitura faltagatik jarduna aurrera joan ahala etiketak unean jartzeko aukerarik ez izatea izan daiteke. Aurreko lerroetan aipatu bezala, ebaluatzaileak elkarriketaren abiadurara egokitu behar du etiketak une zehatzean eta modu egokian jarri ahal izateko. b) Beste bikoteek etiketa bakarra jarri,

baina kopuru handiagoa (B11 eta B13). c) Gehienek bi etiketa edo hiru jarri dituzte (B2, B5, B6 eta B9). d) Badaude 4 etiketa edo gehiago jarri dituztenak (B1, B3, B4 eta B8) gehiago jarri dituztenak. Horren arrazoiak bi izan daitezke: alde batetik VEOren erabilera azkar barneratu dutela edota hizkuntzaren erabileran maila ona izanik akatsak identifikatzeko eta etiketak jartzeko aparteko zailtasunik ez izatea.

Bestalde, gehien erabili duten etiketa “jarriotasunarena” izan dira (instantzia negatibo gehien izan duena) eta, ondoren, “zuzentasunarena” (instantzia guztiak modu positiboan). Hala ere, datuak ikustean ikasle batzuek zuzentasuna modu positiboan markatu dutela ikus daiteke, baina ikasleek egindako hautuan akatsen bat egon daiteke. Hau da, zuzentasuna baloratzeko orduan, “+” ikurra zapaldu dute “-” ikurrari eman beharrean. Beraz, ezin ditugu zuzentasuneko instantzia guztiak modu positiboan baloratu, oharretan antzeman daitekeelako zuzenketa egin nahi izan dutela etiketa horren gainean. Bestalde, nabarmentzeko beste etiketa bat “bolumenarena” izan da. Beste guztien maiztasuna 5etik beherakoa da. Horiek horrela, ikasle hauek uste dute gehien landu behar duten arloa jarriotasuna dela (B1, B2 eta B3) eta gehien erabiltzen dituzten arloak zuzentasuna, jarriotasuna eta bolumena dira.

5. Ondorioak

Hasierako lerroetan aipatu den bezala, lanaren helburu nagusia VEO sistema eta errubrika konparatzea izan da eta ondoren, VEOk eta errubrikak dituzten ahulguneak eta indarguneak zeintzuk diren ezagutzea. Ikasleek bi tresnak erabili ondoren inkesta bete dute eta emaitzei esker aurretik aurkeztutako hipotesiak baloratu ahal izan dira.

Egindako saiakeraren bitartez, ikasleen gehiengoak VEO hobesten duela esan genezake, parekoen arteko balorazio hobea ematen dutelako bideoaren gainean egindako behaketaren bidez. Behaketa IKTen bidez egitean, ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa ere handitu egiten dela esan daiteke eta ondorioz, hizkuntzaren komunikazio arloari ere arreta gehiago eskaini diotela. Beraz, ikasleek nahiago dute VEO bezalako tresna bat parekoen arteko feedbacka emateko eta euren ikasketa prozesuaren inguruko hausnarketa egiteko ere, VEO sistemarekin gehiago ikasi dutela uste dute, inkestetatik ondorioztatu denez.

Hala ere, lan honek mugak ere izan dituela azpimarratu beharra dago. Izan ere, errubrika ikasleen artean jada ezaguna den tresna bada ere, VEO aplikazioa guztiz berria izan da eta ikasleek inkestetan adierazi bezala, balorazio aberatsak eta kalitatezkoak eman ahal izateko, erabiltzaileak tresna ondo ezagutu behar du. Horregatik, VEO maiztasun batekin erabili izan balitz, emaitzak aberatsagoak eta osoagoak izango lirateke. Horrez gain, inkestetatik ateratako emaitzek adierazten duten bezala, etiketa batzuk zenbaitetan gaizki erabili izan dituzte; hau da, akatsa identifikatu dutela argi dago baina instantzia horiek positibo edo negatibo moduan etiketatzerakoan ikurrak kontuan hartu ez dituztela nabari da. Horiek kontuan izanik,

ikasleen tresnaren inguruko ezagutza-maila ona izango balitz, etiketen erabilera ere zuzena izango litzateke.

Honen inguruko prospektiba egite aldera, etorkizunean VEO ikasturte hasieran txertatzeaz gain, VEOren inguruko informazio zabalagoa eman beharko litzaike ikasleei; eta ebaluazioa aberatsagoa izateko asmoz, VEO ikasleekin osatzea aukera ona izan daiteke. VEOk eskaintzen duen etiketa-sistema ikasleek sortu dezakete irakaslearen laguntzaz, modu honetan, euren beharrianetara egokituriko tresna diseinatu dezakete eta asko erraztuko lieke unean-uneko erabilera hori.

Bibliografía

- Battle, J. (2017). *Irakasbil* [2019-06-06].
http://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1945003/mod_habecms/doc_attachment_eu/2036/eH90_Battle-Behaketa-1.pdf
- Caldeiro, Graciela P. (2009). *El impacto de las TICs en la escuela*. Educación: de la práctica a la teoría. [2019-06-06].
https://educacion.idoneos.com/educacion_y_nuevas_tecnologias/el_impacto_de_las_tics_en_la_escuela/.
- Chadwick, C. (1979). Why educational technology is failing (and what should be done to create success? *Educational Technology*.
- Eснаоla, I. (2006). Euskara 2.0: Zer da hori?. *Gara* [2019-06-06].
<https://gara.naiz.eus/idatzia/20061103/art187217.php>
- Falchikov, N. (2005): Improving Assessment Through Student Involvement. Practical solutions for aiding learning in higher and further education. London: Routledge Falmer.
https://cursos.campusvirtualsp.org/pluginfile.php/203477/mod_resource/content/1/9781134395750_sample_527172.pdf
- Kempt, J.E. (1987). Perspectives on the instructional technology (IT) field. *Educational Technology*, XXVII(9), 8-12.
- Megarry, J. (1983). Educational technology: Promise and performance. *PLET*, 20 (2), 133-37.
- Puga, M^a. P. (2006). Investigación de las TIC en la Educación. *Revista Latinoamericana de Tecnología educativa*, 5 (2), 539-552.
<https://relatec.unex.es/article/view/293/277>

- Ríos Londoño, F., eta Yañez Figueroa, J. (2016). Las competencias TIC y su relación con las habilidades para la solución de problemas de matemáticas. *Edutec. Revista Electrónica De Tecnología Educativa*, (57), a341.
<https://doi.org/10.21556/edutec.2016.57.760>
- Sivan, A. (2000). The implementation of peer assessment: an action research approach. *Assessment in Education*, 7 (2), 193-213.
<https://www.tandfonline.com/doi/abs/10.1080/713613328>
- Spitzer, D.R. (1987). Why educational technology has failed. *Educational Technology*, XXVII (9), 18-21.
- Topping, K. (1998). Peer Assessment between Students in Colleges and Universities. *Review of Educational Research*, 68 (3), 249-276.
<https://www.mecd.gob.es/dctm/revista-de-educacion/articulosre359/re35911.pdf?documentId=0901e72b813d72cf>
- Zenteno, A. eta Jorge, F. (2011). Integración y apropiación de las TIC en los profesores y alumnos de educación media superior. *Apertura, Revista de Innovación Educativa*. [2019-06-06].
<http://www.udgvirtual.udg.mx/apertura/index.php/apertura/article/view/193/208>